

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko urtarrilak 19 - 1297 zenbakia



PENTSIODUNAK BORROKAN TINKO

Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza
eta DBH

Hobe Elkarrekin. Zatoz!

Matrikula epea:
Otsailaren 7tik 23ra

Informazio eta zuzenbide berrak
leialde@kua.es
945207113 | 945217188



La★Salle
EHE



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz Klinika - Clínica dental
Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 688 432 808
@egudent

MIGUEL SEMINARIO

ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886

arat.
ARAT ODONTOLOGIA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 831
www.aratclinika.com

@arat_klinika



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologiam Lizentziatua
943 20 72 17

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

99 Eduguia Ala.

- INDIATERAPIA
- KIDU, LENGUAK
- Puzazio eta TRIZERENIA IA
- K. HERRAK + HERRAZKORTZEA

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUETA, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane.mendia@forlmed.com



Esku onetan egotearen
ziurtasuna,
eta denik gure pertsona guztiak,
osatu eta agerikoa izateko.



bista eder

clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistader.es

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PAOI
Ortodontzia / Implanteak / laser Teknologia



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibarko Txakurkrosaren 4. edizioa jokatu zen joan den domekan Arraten. Arrakastatsua izan zen eta, gainera, herriko ordezkariak oso lan ona egin zuten. Lagunarteko giro polita sortu zen bertan eta hurrengo edizioaren zain gaude dagoeneko.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Altxau burua Eibar



Gaur egun mugikorraren gehiegizko erabilerak eta sare sozialetan adin goiztiarretan hasteak gure seme-alabengan duen eraginaz arduratuta eta, beste herri batzuetan jorrotutako bidea oinarri hartuta, "Altxau Burua Eibar" taldea sortu dugu.

Taldean ikastetxe desberdinetako ordezkariak ditugu eta poliki-poliki ekintza ezberdinen bidez hezkuntza digital osasuntsua sustatzen saiatuko gara.

Hala, Instagram bitartez (@altxauburuaeibar) ekintza eta material interesgarria partekatzen hasiko gara.

Ordurarte,
Altxau burua!
Eibar

Hortik esanak



Riad puntan, gaztelera kazetari euskaldunak entrena-tzaileari. "Bagara bi!" esan behar izan du publikoki Jagoba Arrasatek: "Bueno, euskaraz erantzungotsut, ze ez dot ulertzen hainbeste medixo kanpotar egonda, erderaz erantzun biher ixetie zuri". Hasi orduko eten dio berba, ordea, treneko txartel-zulataileak Madrilgo estudio federaletik, ohiko ironia zuriz: "Ez daukat euskara jakiteko zorte-rik...". Antzeko zerbaitek ikusi genuen Gaizka Garitanorekin 2015ean. Zer dinamika sistematikok bortxatzen ditu lehen mailako futbol entrenatzaileak militante gisa agertzera?

IÑIGO ARANBARRI, zutabegilea

Orain dela 2.000 urteko pertsonaiak epaitzen ditugu gure gaur egungo balioekin eta, aldiz, arazorik gabe onartzen ditugu beste kultura batekoek diotena gure balioen gainetik pasatuta ere. Esaterako, Europako herrialde bateko guraso musulmanen talde batek uko egin zion euren seme-alabek hezkuntza sexualaren klaseak jasotzeari, eta onartu egin zen normaltasun osoz. Hemen Santiago Abascalek gauza bera proposatuz gero, gurutziltzatuko lukete. Non dago koska? Islamak biktima izatearen ezkutua duela, biktima izan bazara inor ez delako zurekin sartuko; hori arlo guztietan.

PABLO MALO, psikiatra

Agian gogoratu beharko genuke nondik gatozen gu, guraso boomerrak: Canal +-eko porno kodifikatua ikustetik; ipurdia beti sudaderarekin estalia erametatetik; Rosana edota T.A.T.U. bezalako erreferente lesbiko armarizatu edo prefabrikatuak baino ez izatetik... Tira, agian sexu-errepresioan eta tabuan hezi ginenok badugu zer ikasi nerabeengandik eta Bad Bunnyren letrengatik.

JUNE FERNANDEZ, Pikara Magazine

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OSTERA → Bidaia, buelta. "Eibartik kanpora osteraren bat egin bihar zebanian, sonbreru ta guzti juaten ei zan".

Berriz, aldiz. "Herri batzuk gero eta aberatsago, beste batzuk, ostera, gero eta pobriago".

OSTERA (BE) → GBerrero. "Ostera be, milla bidar esandako koskan jausi da".

1920

Banco de Pruebasoko beharginak

Urte horren inguruan egindako argazkian, gaur egungo Juan Gisasola kalean zegoen Banco de Pruebasoko beharginak ageri dira. Han probatzen ziren Eibarren egiten ziren suzko arma guztiak, behar bezala zebiltzala ziurtatzeko. Txaltxa Zelaiko parkea eta epaitegi berria egiteko bota zuten.
Argazkia: Ego Ibarra.



Farmaziak

BARIXAKUA 19
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 25
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 26
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Angel Uribarri Garitazelaia.** 81 urte. 2024-01-08.
- **Alberto Perez Garcia.** 93 urte. 2024-01-10.
- **Teresa Gastesi Ariztegi.** 97 urte. 2024-01-11.
- **Raquel Alvarez Rodriguez.** 88 urte. 2024-01-11.
- **Amelia Villar Morales.** 88 urte. 2024-01-12.
- **Fernando Eguren Elkoro.** 81 urte. 2024-01-13.
- **Juan Fernandez Bouzas.** 86 urte. 2024-01-16.
- **Benigna Lasuen Urkidi.** 101 urte. 2024-01-16.



Gizon bat atxilotu dute 49 migratzaile esplotatu eta egoera osasungaitzean ostatu emateagatik, eta gertatutakoa gogor gaitzetsi eta salatu dute

Aste honetan jakin da Polizia Nazionalak, Eibarko Udaltzainekin elkarlanean, gizon bat atxilotu duela, Eibarren 49 migratzailei egoera osasungaitzean ostatu ematea leporatuta, gero eraikuntza lanetan esplotatzeko. Espainiako Barne Ministerioak emandako informazioaren arabera, atxilotuak etxebizitzaren logela ezberdinetan eta lokal komertzial batean banatuta zituen migratzaileak, hilean 250 eta 450 euro arteko alokairuak kobratuz. Gainera, informazioaren arabera, diru-kopuru baten truke herrian erroldatzen zituen, eta eraikuntza enpresa batean lana eskaintzen zien, neurrigabeko lan-baldintzekin. Poliziaren arabera, atxilotuak hilean 5.700 euro jasotzen zituen alokairuengatik. Atxiloketa abenduaren 30ean gertatu zen, eta gaur egun aske dago gizona, epaiketaren zain.

Albisteak haserre handia sortu du herrian, eta horri lotutako erreakzioak ere egon dira. Deba Bailara-

ko Kontseilu Sozialistak deituta, eguaztenean elkarretaratzea egin zen Untzagan, gertatutakoa salatuzko. LAB sindikatuak, berriz, honako adierazpenak egin ditu: “Kapitalismo basatiak beste behin ere bere aurpegi gordin eta krudelena erakutsi digu egun hauetan, non pertsona migratzaileen egoera kaskarra, eta bizi behar duten miseria eta muturreko txirotasun egoera agerian geratu diren. LABetik irmoki salatu nahi ditugu honelako jarrera esplotatzaileak, eta erabat gaitzetsi eta salatu nahi ditugu honelako jokabide makur eta anker-rrak, giza ustiapen soila helburutzat dutenak, eta orokorrean gisa honetako jarrera deitoragarriak betiketozen dituztenak. Mozkin ekonomikoen gainetik balioak daude eta, batez ere, pertsonak. Euskal Herria harrera herria dela eta izan behar duela uste dugunontzat, honelako jarrera tamalgarriek ez dute lekurik”.



Gabonetan Oparitu Eibar txartelak izan duen harrerarekin pozik daude

Oparitu Eibar Txartelak harrera bikaina izan du Gabonetan, “12.000 eurotik gorako eragina izan baitu Eibarko establezimenduetan egindako erosketetan”, azaldu du Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI). Abenduaren 26an Oparitu Eibar Txartelen zozketa egin zen, guztira 2.000 euro banatuz, Gabonen aurreko promozioan opari-txartelak erosi zituzten guztien artean. 2.000 euro horiek Eibarko establezimenduetan erabiliko direla azpimarratu dute. Gogorarazi dutenez, txartela www.erosieibarren.eus webgunean erosi daiteke, urte osoan zehar.



Pagatxa emakume taldearen zine-forum saioa

Pagatxa Emakume Elkarteak, Udaleko Berdintasun zerbitzuaren laguntzarekin, zine-forum saioa antolatu du datorren barixakurako. Susanna Nicchiarelli zuzendariaren “Miss Marx” filma proiektatuko dute, 18:30ean Portalean, eta sarrera librea da.



Palestina askatzea eskatzeko manifestazioa egingo da bihar 18:30ean

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek manifestazioa antolatu dute biharko, 18:30ean Untzagan. Aurretik deitu dituzten mobilizazioen bidetik, “Palestina aske” izango da goiburua. Antolatzailen berbetan, “hiru hilabete daramatzagu bonbardaketa, familien hilketa selektiboak, auzo osoen suntsipena, umeen hilketak... Gazan eta Zisjordanian ikusten. Eibarren ez dugu beste alde batera begiratu nahi, badakigu zer ari den gertatzen, hurbiletik jarraitzen ditugu hango gertae-rak, eta ez dugu genozidio horren konplize izan nahi”.

Eibarko Klub Deportiboak egun osoko egitarauarekin ospatuko ditu 100 urteak urtarrilaren 30ean

Eguazten arratsaldean Toribio Etxebarriako euren lokaletan aurkeztu zuten Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak egun berezi horretarako prestatu duten egitaraua. Martitzena izanda ere, goizean hasi eta iluntzera arteko ekitaldiekin osatuko dute programazioa, “beti ere eibartar guztion parte-hartzea bultzatzeko asmoz”. Astelena frontoiak hartuko ditu nagusiki egun horretako jarduerak, goizeko 08:00etatik aurrera: “Ordu horretatik hasita, 16:30ak arte, eskoletako umeentzat ego-kitutako ekintzak izango dira na-

gusi. Ondoren, 100 kilometroko distantzia osatuko dute hainbat lagunek, rodilloan zein zintan, eta pilotan jokatzeko aukera izango da, barru modalitateko bost esparrutan”. Arratsaldeko 19:15ean kalejira hasiko da, Errebalera joan eta bertan orain dela 100 urteko lehen akta hura irakurtzeko. Hor-tik Deporreraino bueltatuko dira eta tarteak izango da mokadutxoak hartzeko. Eta streaming bidez grabatuko dituzten azken ekintza horiek “17:30etik aurrera eskaintzeko aukera izango dute herriko taber-netan”.




Eibarko ondare industrialaren mapa egin du Udalak, Debegesarekin elkarlanean

Udalak, Debegesa Garapen Agenziarekin elkarlanean, hiriaren ondare industrialaren mapa sortu du. Horretarako, industria-erai-kin esanguratsuenak aukeratu ditu, “zehazki, industria-gune gisa herriaren bilakaeran berebiziko garrantzia izan dutenak. Bisitariak

erakartzeaz gain, hiriaren ondare industrialala aintzat hartzea da helburua”. Mapak eraikinaren kokalekua erakusten du, bertan izandako jarduera ekonomikoarekin batera. Maparen atzealdean, herritarrentzat oso ezagunak diren enpresa horien antzinako logotipo eta produktue-

kin collage bat osatu dute. Industria-ondarearen mapa Armagintza-ren Museoa, eskualdeko turismo bulegoetan eta herriko ostatuetan eskuragarri egongo dela adierazi dute. Formatu digitalean eskuratzeko aukera ere egongo da Udalaren webguneko turismo atalean.



Atalkako 31 zuzenketa aurkeztu dizkio EH Bilduk 2024ko udal-aurrekontu zirriborroari

Eibarko EH Bilduko ordezkariak aste honetan egindako prentsurrekoan jakinarazi dutenez, gobernu taldearen 2024ko udal aurrekontuaren zirriborroari hiru milioi euro baino zertxobait gehiagoko balioa duten 31 atalkako emendakin egin dizkiote. Euskara, kultura eta jaiak; Ongizatea; Espazio publikoa; Etxebizitza eta gazteen emantzipazioa; Hezkuntza; Trantsizio energetikoa eta Sozioekonomia dira EH Bilduk azpimarratu nahi izan dituen gaiak. Negozia-ketarako eta akordio batetara iristeko prestutasuna ere azaldu du EH Bilduk.

Agerraldian azaldutakoari jarraituz, 2024. urte honetarako 48.800.000 euro inguruko aurrekontu-zirriborroa aurkeztu du PSEk, “iazkoarekin alderatuz 1.600.000 euro gehiago”. Nabarmendu dutenez, Pertsonal eta Gastuen kapituluek izango dituzte igoera nabariak, “eta, esatera-

ko, Pertsonal Atalak aurrekontuen %33 suposatzen du”. Hirigintza eta Obra saileko aurrekontuetan, aldiz, aurten ere jaitsiera eman da proposamenean, “ziurrenik aurreko urtetatik oraindik garatu gabe dauden proiektuak aurrera atera ezinean dabilelako Udal Gobernu”, azaldu zuten.

EH Bilduk negoziaketarako eta akordioetara iristeko bere prestutasun osoa azaldu dio PSEren Udal Gobernuari: “Espero dugu orain arte izandako sintonia bera izaten jarraitzea eta akordioetara iristeko prestutasuna izatea. Argi gelditu zen azken hauteskundeetan herriak zer nahi duen, are gehiago esango dugu, guztion arteko adostasunetik dator herriaren aberastasuna eta herritarrentzat onura, eta horretarako prest gaude”.

EH Bilduren udal-taldeak aurkeztu dituen emendakin guztien informazio zehatza www.etakitto.eus webgunean daukazue.



Eibarko Txirrindulari Elkartek lasterketetarako laguntza eskatu du

Eibarko Txirrindulari Elkartearen urteko batzarra egin zen zapatuan, Portalean. Besteak beste, joan den urtearen balorazioa egin, iazko diru-kontuak azaldu eta 2024rako aurrekontua onartu zituzten, urte berriko egutegia eta beharrak aztertzearekin batera. Batzarrean bertan, bazkideentzat dei berezia egin zuten, lasterketetan laguntzeko eskatuz, jende gehiago behar dutelako errepideetan. Laguntzeko prest egonez gero, 943 20 34 80 telefono-ra deitu edo clubciclistaiebarres@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



Eskozia La Brava-ren Gabonetako otarra Zaragozara joan da

02183 zenbakia izan da saritua Eskozia La Brava-ren Gabonetako otarren zozketan. Irabazlea Alberto Martinez Zaragozako Zarahuecha de Borja peñako kidea izan da. Zorionak!

Kantuak lagun, gaua magikoa bilakatu zen

Coliseo antzokiko jarleku guztiak bete zituen Jon Maiak, "Kantu berri bat gara" ikuskizunaren aurkezpenean. Bertsolari eta idazleak Gorka Hermosa, Pello Ramirez, Nacho Soto eta Nerea Quincoces musikoen laguntza izan zuen taula gainean eta, horrez gain, herriko hainbat kide gonbidatu zituen: Maier Fernandez, Jone Amuategi, Idoia Lahidalga eta Jone Lahidalga (Kezka Dantza Taldea), Aitor Gorosabel (Su Ta Gar) eta Neema Fawzy El Sajied, Mohamed Fadel eta Glenda Juarez (Ongietorri eta Berbetaneko partaideak). Horrela, ikuskizun biribila eskaintzeaz gain, saioa benetan hunkigarria izan zen ikustera joan zirentzat, baita Maiarentzat ere. Berak eta berarekin aritu zen lantaldeak Eibarren sortutako giro berezia eta beroa nabarmendu zituzten amaieran, "gau magikoa" izan zela esateraino. ...eta kitto! Euskara Elkartek eta Eibarko Udalak antolatu zuten saioak harrera bikaina izan du, eta antolatzaileen berbetan, "herritarrek kalean zein sare sozialetan egindako balorazioak benetan positiboak izan dira".

Une berezienak bideoan ikusgai daude gure YouTube kanalean





Alejandro Carral (Eibar, 1920-1989) pertsonaia oso polifazetiko eta ezaguna izan zen sasoi bateko eibartarren artean. Argazki hau bere txaletean egin zioten, 1969an. PLAZAOLA

Carralek Elgoibarren, San Ferminetan eta frontoian egindako broma eta istorioak kontatzen ditu Ramirok, Jose Zuloaga eta Jose Kareagarekin berbetan.

Carralen gaiztakeriak

Ramiro Larrañaga Fdez. de Arenzana
(1924 – 2005)



Soraluzen jaiotakoa. Gerra Zibila eta ondorengo urteak zuzenenan bizi izan zituen. Kulturaren arlo desberdinetan gogor lan egin zuen bizi guztian zehar, eta emaitza aldetik gizon oparoa izan da.

Ramiro Larrañagari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

(...) Majaderua zan. Harek sanfermiñetan be, taberna baten, egin juan 'aber, emaidazu kopa bat handikan (...). Andriak eskillaria hartu eta, tak, handikan kopia. Ta, gero, 'oin emoidazu beste bat handikan'. Ta, jolin, aspertu zan, dirudi. 'Oye, dale gasolina, qué coño!', esan etsen sukaldian, ta hantxe, kopan, gasolinia bota. Aspertuta ya. Hartu juan gasolinia ta (edateko keinua), laga eban kopia ta bruum bruum (motorraren soinua). Ta urten eban holan kalera. Bai, motua, motua, motorista baten moduan (barreak)...

Pentsiodunen sei urteko borroka

Astelehenean, urtarrilaren 15ean, bete ziren sei urte Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak pentsio duin eta publikoen aldeko borroka hasi zuela, eta hori ospatu zuten, Eibarren bezala, Euskal Herriko 80 herri baino gehiagotan egindako elkarretaratzeeetan.

Euriaren eraginez udaletxeko arkupeetan egindako kontzentrazioan 215 lagun bildu ziren. Eibarko Pentsiodunen Plataformako ordezkariak hildako lagunak gogoratu zituzten, beraien alde minutu bateko isilunearekin, eta jarraian orain arteko lorpenak errepasatu zituzten. Nabarmendu zutenez, sei urteko borrokari esker pentsiodunentzat hobekuntza garrantzitsuak lortu dira, baina falta dena lortu arte borrokatzen jarraitzeko gertu daude.

Pentsio publiko eta duinen aldeko mobilizazioen seigarren urteurrenaren harira Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak egindako manifestuaren izenburuak ezin hobeto laburbiltzen du pentsiodunen mugimenduan nagusi den sentimendua: “Lortutakoa ospatzen dugu, falta dena lortuko dugu”. Izan ere, sei urte hauetan milaka pentsiodun irten dira kalera, astelehenero, kolektiboarentzat pentsio publikoak eta duinak

eskatzera, eta aurrerantzean ere horrela jarraituko dutela oso argi daukate, eskatzen duten guztia lortu arte: “Urteetan pentsiodunak txarto tratatu ondoren, Fatima Bañez ministroak pentsioetan %0,25eko igoera aginduz eskutitza bidali zigun. Horrek hautsak harrotu zituen, eta milaka pentsiodun kalera irten ginen, borrokatzera. Sei urte geroago hala jarraitzen dugu. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendukoek lortutakoa ospatu egiten dugu: 2013ko PPren erreformaren IRP (0,25) indargabetzea, Pentsio Sistema Publikoa (PSP) guztiz bideragarria dela erakustea, Iraunkortasun Faktorea indargabetzea eta gure pentsioak erdira murrizteko nahia eta erabaki berriak hartzeko ahalegina saihestea. Izan ere, aurten izango dugun %3,8eko igoera, galdutakoa konponduko ez duen arren, gure borrokkak lortu du. EHPMkoek, euria egin zein eguzkia izan, 275 astelehen geroago, kalean jarraitzen dugula ospatzen

dugu, pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta guretzako eta hurrengo belaunaldientzako nahiakoak izan daitezten eskubidearen alde borrokan”.

Lortutako guztia borrokari esker

Asteroko borroka hori, gainera, harrotasunez bizi dute, eta jakin badakite orain arte lortu dituzten hobekuntza guztiak horri zor diotela: “Harro gaude bidezkoa den aberastasunaren banaketaren aldeko borroka egiteaz eta erakunde sozial eta sindikalekin partekatzeaz. Baita soldatak, pentsioak eta zerbitzu publikoak hondatzen dituzten politika publikoek aldatzeko erreferente garrantzitsua izateaz ere. Osasun publikoari eta mendekotasuna artatzeko zerbitzu soziosanitario publiko komunitarioei laguntzeko mobilizazioetan parte hartzen jarraitzen dugu. Langileen soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko borrokei elkartasuna adierazi diegu. Euskal Herrian gizarte



>>> Oraindik lortu ez dituzten eskaeren artean, alargunek %100 kobratzea eta emakume eta gizonen artean dagoen ezberdintasuna desagertzea dira garrantzitsuenetarikoa

>>> Sei urte ondoren, ia 200 pentsiodun elkartzen dira astero-astero, pentsio duin eta publikoen alde astelehenetan Untzagan egiten diren mobilizazioetan

mobilizatorako erreferente izatea lortu izana, eta estatuko beste herri batzuetako pentsiodunen elkarrekin mobilizazioak partekatzea ospatzen dugu”.

Eibarko Pentsiodunen Taldeak ere sei urteko borrokari esker lortutakoa modu positiboan baloratzen du, Emilio Aiaastui taldeko kidearen berbetan: “Sei urte eta gero, gure

balorazioa baikorra da, baina ez da nahikoa. Gure helburuak lortzeko asko falta da oraindik. Baina, hala eta guztiz ere, ni gaur oso pozik geratu naiz. 200 lagun baino gehiago egon gara hemen, eta sei urte pasatu eta gero hemen jarraitzea ez da gutxi”.

Hobekuntza garrantzitsu batzuk lortu direla-eta, pozik daude: “Ra-

joyren Gobernuaren legearengatik zegoen 0,25 hori desagertzea lortu dugu, eta hori garrantzitsua da, horren ondorioz pentsiodunek %4 edo %5 galtzen genuen-eta. Iraunkortasun Faktorea indargabetzea ere lorpen oso garrantzitsua izan da. Pentsioen blindajea esaten diogun horretan ere hobera egin dugu, KPI betirako errespetatzeko akordioa lortu genuen 2021. urtean Madrilan, eta hori garrantzitsua da. Eta, gero, badaude beste igoera batzuk, beste pentsio batzuei eragiten dietenak. Guk, orokorrean, balorazio baikorra egiten dugu. Poliki-poliki bagoaz gauzak lortzen, baina kontziente gara, baita ere, lortzeko zenbat gauza falta diren”.

Hori dela eta, Euskal Herri osoko pentsiodunek borrokari jarraitzeko milaka arrazoi dituztela diote: “Onartezina da langileek, pentsiodunek eta, oro har, herritarrek, sekula baino handiagoak diren fi-

nantza-oligopolioen eta energia kudeatzaileen mozkinak ordaintzea, horretarako erosi behar ditugun gauzen prezioa igota. Onartezina da gero eta pentsiodun gehiagok uko egin behar izatea oinarrizko premiak asetzeari, hala nola, etxe eroak izateari, osasunerako eskubideari, elikadura osasuntsuari eta erretiroaren ondoren diru-sarrerara duin eta nahikoak bermatuta izateari. Horregatik guztiarengatik, azken sei urtean eskatzen ari garen premiazko eta ezinbesteko aldarrikapenak eskatzen jarraituko dugu”.

Borrokatzen jarraitzeko prest, eskatutako guztia lortu arte

Adibide bat aipatzearen, mobilizazioak hasi ziren lehen egunetik eskatzen ari diren gutxieneko 1.080 euro horiek lortzeko falta direnen zerrendan leudeke: “Hala da, momentuz ez dugu horrelakorik lortu. Madrilen eskatu dugu hori betetzea, eta gauza bera eskatu diogu Gasteizko gobernari ere. Baina lortuko dugu”. Hala, zalantza izpirik gabe erantzun digu Aiastuik.

Lortzeke daudenen artean, arreta berezia merezi duten beste eskaera batzuk ere badaude: “Alargunek %100 kobratzeko eskaera ere hor dago, genero arrakalarik ez egotea... Genero arrakalarena oso gogorra da. Emakumeek gizonek baino %40 gutxiago kobratzen dute, pentsioetan. Eta badakigu hori nondik datorren, bete duten lanpostutik eta jaso duten soldatatik. Emakume eta gizonen artean dagoen ezberdintasun horrekin amaitzea nahi dugu”.



Aste honetako elkarretaratzea berezia izan da eta, sei urteko borroka ospatzeko, hamaiketako ederra egin zuten astelehenero Untzagan elkartzen direnek. SILBIA HERNANDEZ

Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



“Oso pozik nago filosofia kalean egiteko aukerarekin, filosofia bertan egon behar da-eta”

MARISA IGLESIAS • Filosofoa



Filosofia gai orokor eta funtsezkoen azterketa sistematizatu da. Ziur aski, berba hori entzutean, hitz potoloak eta pentsalari ezagunak etortzen zaizkigu burura, baina, Marisa Igleziasek dioen bezala, “guztiok gara filosofia”. Filosofiaren atea ireki dizkigu Igleziasek eta amaierarik gabeko munduan murgildu gara berarekin.

Filosofia ikasketak egin eta hezkuntzan lan egin ondoren, arlo biak uztartzen ditu Igleziasek, berak landutako metodoa erabiliz. Horrez gain, filosofia herrira zabalduz, ‘Elkarrizketa filosofikoak’ izeneko ekimena eskaintzen du, eta horretan aritzeko aukera ematen dute Ipuruako Merkatu Plazan eta Esperientzia Eskolan, besteak beste. Azken neurrian, filosofia praktikara eramaten du, gure bizitzan zeresan handia izan dezakeelako.

Filosofia praktikoaren alde egiten duzu, baina zer da zehazki?

Filosofia praktikoak hamarkadak daramatza izan ez duen protagonismoa eduki nahian. Antzinako Grezian bazuen, baina mendeetan zehar galduz joan zen, oso jarduera akademikoa bihurtu zelako. 1980. hamarkadatik aurrera, ostera, ‘Más Platon y menos Prozac’ (Lou Marinoff) liburuaren harira, bizitzari aplikaturiko filosofiaren gorakada eman zen. Bizitzan gertatzen diren kasuak modu filosofikoan landu nahi zituzten, elkarrizketa filosofikoen bitartez. Agian horrela arazoak ez dira konpontzen, baina beste ikuspuntu batetik lantzen dira. Antzinako Greziako komunitate filosofikoetan egiten zen hori, eta baita ekialdeko filosofietan ere. Orduan,

orain dela urte batzuetatik hona, arlo hori lantzen ari gara hezkuntzarekin lotura izan dugun filosofo talde bat. Ni neu Madrilen egoitza duen eskola filosofiko bateko kide naiz, Monica Caballek gidatzen duena, jakinduriaren filosofian espezializatua, hau da, antzinako jakiturian. Ezagutza hori elkarrizketa filosofikoetan, kafe filosofikoetan, filosofia ikastaroetan eta abarretan erabiltzen dugu, jakinduria hori hedatuz.

Horrez gain, hezkuntza eta filosofia uztartzen dituzu zure lanean, baina nola?

Ikasleek ikasten laguntzeko beharra zutela ikusi nuen. Ikasketa prozesua luzea da eta ‘Pentsatu, ikasi eta estudiatu’ izeneko metodoa sortu nuen. Filosofian oinarritzen da, eta baliabide filosofikoak erabiltzen ditu ikasketetarako.

Nolako metodoa da?

Oinarrizko gaitasunetik hasten da, hau da, pentsatzen ikastetik. Hortik eta ikasten hastetik hasten da, eta hortik aurrera beste gaitasun guztiak jarri ditzakegu martxan. Pentsamendu kritikoa pentsamendu filosofikoaren berezko jarduera da, baina hori ere ikasi egin behar da baita ere. Guztiok pentsatzen dugu, baina teknika eta modu batzuk daude pentsamendu kritikoa egiteko eta, ikasleen kasuan, modu errazagoan egiteko.



Ipuruako Merkatu Plazan egiten diren 'Filosofia elkarrizketak' bideratzen ditu Marisa Iglesiasek. EKHI BELAR

Metodoa edozein ikaslek erabili dezake?

Bai. Ikasketak egiten diharduen edonorentzat balio du, Lehen Hezkuntzatik hasita oposaketak egiten diharduteneraino. Ikasketak egiten nondik hasi ez dakitenentzat, gainezka daudenentzat, antolatu nahi dutenentzat... baliagarria da. Baliabide filosofikoak metakognizioarekin oso lotuta daude eta abstraitzen, hausnartzen, arrazoitzen, ondorioztatzen, kontzeptualizatzen eta abar laguntzen dute. Ikasten jarri baino lehen ikasi behar diren zereginak dira. Ikasketetarako erremintak eta estrategiak dira. Estrategiak denboran luzatzen dira eta, ikasketez gain, lanerako ere bideratzen dira. Interesgarria da oso gaztetatik etorkizunaren ikuspegia edukitzea.

Ikasketez gain, bizitzarako ere baliagarriak izango dira jakintza horiek, ez?

Bai, horregatik hau bizitzarako filosofia da. Zure bizi-

tzaren momentu edo ekintza ezberdinetarako gauza baliagarriak eman ahal dizkizu filosofiak.

Urriaz geroztik 'Elkarrizketa filosofikoak' egiten dituzue Ipuruako Merkatu Plazan. Nolakoak dira?

Filosofia egiteko bilgune edo espazio erreal bat lortzea zen helburua. Azken neurrian, guztiok gara filosofoak. Pentsatzeko esperientzia hori partekatzea oso interesgarria da. Oso pozik nago filosofia kalean egiteko aukerarekin, hau da, benetan bizi garen eta habitatzen ditugun lekuetan filosofia bertan egon behar da-eta. Beharrezkoa da eremu horretan egotea, ez akademian bakarrik. Saiok oso erantzun ona izan dute. Filosofiak ez du oso irudi onik izan. "Zergatik pentsatu?", esan izan dute askok, eta hain zuzen ere galdera hori da hasieran planteatzen duguna: "Zergatik pentsatu?", "pentsatu behar da ala ez?", "zer da pentsamendu kritikoa?", "gizarte bezala lo eta anestesiatuta egon behar gara ala adi?"...

Askotan badirudi pilotu automatikoarekin egiten dugula bizitza, gehiegi pentsatu edo hausnartu gabe. Gehien jota, ideia batzuk hartu, irentsi eta bota egiten ditugu. Zuen saioetan guztiz kontrakoa egiten duzuela dirudi.

Hori da. Filosofiaren Ikerketa Komunitateak direla dio filosofo batek eta arrazoia du, bakoitzak berea gehitzen duelako. Nik gai batzuk proposatu ditzaket (pentsamendua, autoezagutza, etorkizuna...), ardatz teorikoa ezartzen dut, baina parte-hartzaile bakoitzak bere bizitza-esperientzia eta jakinduria ditu, eta hori partekatzen dugu. Albo batera lagatzen ditugu adin ezberdintasunak edo bestelako aldeak, eta horrek aberasten eta eraikitzen du filosofia praktikoa. Pentsamendu kritikoa helduz, Platonen leizearen mitoa lantzen dugu, noski. Izan ere, ez dugu gainditu, leizean jarraitzen dugu. Eta ideiak irentsi eta botatzeari dagokionez, gero eta kezkarriagoa da. Pentsaeren askatasunaren bidea hartu beharrean, leizera bidean goaz gure kabuz ez pentsatzean.

YouTuben gai filosofikoak lantzen dituzten gero eta kanal gehiago daude, milaka eta milaka jarraitzaileekin. Filosofiaren inguruko interesa hazi dela uste duzu?

Bai, horrela da. Azken urteotan gero eta gazte gehiagok hasi dituzte filosofia ikasketak unibertsitateetan. Egia ere bada, eta zoragarria da, karrerak batu dituztela. Adibidez, Filosofia, Politika eta Ekonomia karrera hor dago aspalditik (Barack Obamak egin zuena). Hortik joango da etorkizuna, humanitateak eta zientziak baten dituzten karreretatik. Interesa dago eta hemen antolatzen ditugun ekintzetan igarri dugu. Orain dela 20 urte, Parisen 200 kafe-filosofiko zeuden.

Berandu goaz?

Ez dakit. Agian ez da behar den bezala iragartzen eta jendeak uste du intelektualentzako gauzak besterik ez direla. Batzuek uste dute filosofiari buruz jakin behar dela eta ez da horrela, horretarako gaude horren inguruan ikasketak egin ditugunak, ezagutza hori guztia modu erraz eta praktikoa igortzeko.

Beraz, ez ditugu jakin behar Platonek, Rousseauk edo Foucaultek esan zituztenak filosofia egiteko?

“Elkarbizitzan ditugun arazo asko geure buruaren ezjakintasunetik datoz. Edo, izan daiteke, gure burua gehiegi ezagutzen dugula pentsatzen dugula”

“Zure bizitzaren momentu edo ekintza ezberdinetarako gauza baliagarriak eman ahal dizkizu filosofiak”

Ez da beharrezkoa. Elkarriketak aurrera egin ahala irtetzen dira autoreak. Gure kabuz zergatik pentsatzen ez dugun aztertzen badugu, Platon irtengo da, antzinako filosofoei buruz jardungo dugu eta, noski, Kant irtengo da, “pentsatzera ausartu zaitez” esan zuena. Irteten direnez, euren inguruan jarduten dugu, baina lezio handirik eman gabe, filosofiaren historia ezagutzeko besterik ez. Hori da pentsamenduaren historia, eta historian zehar gertatu diren gertakizunei lotuta doa. Alde bi horiek banatu egin izan dira edo ez dira ondo lotu, baina gertatzen den guztia aurretik pentsatua izan da, edo alderantziz.

“Pentsatzera ausartu zaitez” esaldia aipatu duzu. Batzuetan pentsatzeko beldur gara?

“Pentsatzen hasiz gero, non sartuko naiz?”, galdetu ahal diogu buruari. Baina, filosofo askok dioten moduan, besteak ezagutzeko aurretiko pausoa da. Elkarbizitzan ditugun arazo asko geure buruaren ezjakintasunetik datoz. Edo, izan daiteke, gure burua gehiegi ezagutzen dugula pentsatzen dugula.

Zentzu horretan, onuragarria da filosofiaren inguruan taldean jardutea?

Bai. Gure gelako bakardadean bagabiltza eta ez badugu partekatzen, norberari buruzko pentsamendua bakarrik garatzen da eta zure pentsamenduan bakarrik murgiltzera eramaten zaitu. Hori partekatuz gero, gure pentsamenduak besteekin kontrastatu ditzakegu eta benetan ikusi dezakegu zer gertatzen zaigun edo besteek zer uste duten. Azkenean, filosofia orok ongizatearen bilaketa egiten du, helburu bat du, eta guztion artean errazago aurkitu daiteke.



Barixakuak Jolasian Torrekuan izango da gaur

Torrekuko parkeak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Arratsaldeko 17:00etan hasita 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat egingo dira jolasak, ordubetez, 18:00ak arte. Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar eta ez da izenik eman behar; bertan agertzearekin nahikoa da. Hurrengo barixakuan, urtarrilak 26, Urkizuko parkeak hartuko du Barixakuak Jolasian ekimena.



Eider Rodriguez izan da Harixa Emoten saioan

Errenteriako idazleak bisitatu du aste honetan euskarazko irakurketa-taldea "Eraikuntzarako materiala" liburuarekin. Alkoholak blaitutako aita-alaba batzuen arteko harremanaz dihardu Eiderrek argitaratu duen lehen nobelak. Hurrengo saioa otsailaren 13an izango da eta saio horretarako Nerea Ibarzabalen "Bar Gloria" liburua irakurriko dute taldeko irakurleek.

LH
5-6

Aratosteak 2024 PLAY-BACK lehiaketa

Otsailak 11, igandea

arratsaldeko 17:00etatik aurrera Untzaga plazan

BETEBEHARRAK:

- Mozorrotuta joatea.
- LHko 5. edo 6. mailako ikaslea izatea.
- Taldeak, asko jota, SEI lagunez osatutakoak izango dira.
- Partaide edo talde bakoitzak behin hartuko du parte.
- Play-backeko **ABESTIAK EUSKARAZ** izan behar dira.

IZEN EMATEA:

- Abestia MP3 formatuan grabatu.
 - Izen-emate fitxa bete: taldearen izena + ikastetxea + aukeratutako abestiaren izenburua + partaideen izen-abizenak + telefonoa)
 - banaketa.etakitto@gmail.com helbidera bidali dokumentu biak (abestia + izen-emate fitxa)
- Otsailaren 2a baino lehen.**

SARIAK:

Interprete onenari - Koreografia onenari - Mozorro onenari

eta kitto!
EUSKARA EGINA



Erretzeari lagatzeko terapiak Minbiziaren Aurkako Elkartearen eskutik



Minbiziaren Aurkako Elkarteak (AECC) tabakoari agur esateko aukera paregabea eskainiko du datozen asteotan. Doako terapien bitartez, azken 40 urteetan %60ko arrakasta duen programa jarriko du herritarren eskura, aurrez aurre edo online egiteko. Laura Mongelos elkarteak psikologoaren eskutik emango dute zerbitzua eta berarekin egon gara gaiari buruz berbetan.

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



Urte berria hastearekin batera ohikoa izaten da gure buruari helburuak jartzzea, eta horrelakoetan askotan nabarmentzen da erretzeari lagatzea. Bide horretan, AECC-k eskua luzatzen die nahi hori dutenei eta hamaika saioen bitartez helburua betetzen lagundu nahi die. Horretarako, “saioetan parte hartzen duen pertsona motibatua egotea da garrantzitsua”, Laura Mongelos psikologoaren berbetan. Aitortzen du normala dela erretzeari lagatzeko momentuan zalantzak edukitzea, baina saioak egin ahala zailtasunei, beldurrei eta zalantzei aurre egitea da helburuetako bat.

Mongelosek esan digu erretzeari lagatzeko saioak interaktiboak eta indibidualizatuak izaten direla. “Bertan pertsona bakoitzaren estrategiak eta trebetasunak berreskuratu eta indartzen dira, tabakoa uzteko etapa bakoitzeko egoerei aurre egiteko”, bere berbetan.

Tabakoa lagatzeko prozesu hori dolu bat izango balitz bezala plan-

teatzen dute. Beraz, horrela antolatzen dituzte terapiaren hamaika saioak: hasierako bederatzai saioak astean behin egiten dira, hamargarrena 6 hilabetera eta hamaikagarrena urtebetera. Izan ere, psikologoak dioenez, “garrantzitsua da urtebetez prozesuaren jarraipena egitea, urteroko ospakizunetan, oporretan eta bestelako momentuetan taldearen bermea izateko”.

Aurrez aurre edo online

Aurrez aurreko saio horiek taldeka edo banaka egiteko aukera eskaintzen du AECC-k. “Lehendabizi taldeak egiten saiatzen gara, baina batzuetan zaila egiten da, batez ere bakoitzaren ordutegi ezberdintasunen ondorioz”, azaldu digu psikologoak. Saioak AECC-k Eibarraren (Ardantza, 11) duen egoitzan egingo dira eguenetan 11:00etatik 12:00etara.

Batzuetan, ostera, erretzeari laga nahi dioten pertsonak ez dute aurrez aurreko saioetara joateko aukerarik. Ba lasai egon daitezela,



AECC-k 40 urteko esperientzia du erretzeari lagatzeko bidean laguntzen eta bere terapiak %60ko arrakasta dute.

saioak online egiteko aukera ere badagoelako. “Askorentzat errazagoa da modu horretan parte hartzea”, diosku psikologoak. Online saioak astelehenetan (15:00etatik 16:30era), martitzenetan (11:30etik 13:00etara) eta eguaztenetan (17:00etatik 18:00etara) emango dituzte.

Eta galdera da, zein metodok funtzionatzen du hobeto? “Garrantzitsua iruditzen zait esatea hori pertsonaren edo taldearen araberakoa dela”, Mongelosen berbetan. “Bata ez da bestea baino hobea, formatu bakoitzak ekarpen desberdina egiten du”, bere ustez.

RespirApp aplikazioa

AECC pertsona guztien beharretara egokitzen saiatzen da erretzeari lagatzeko prozesuan erraztasunak eskaintzeko eta, zentzu horretan, teknologia berriak ere erabiltzen ditu. Horren adibide da RespirApp sistema, erretzeari uzteko Drogei Buruzko Plan Nazionalari esker martxan jarritako doako aplikazioa.

Hiru fasetan banatutako prozesu osoa eskaintzen du RespirApp-ek, “erabiltzaileari bere jardueraren kontrol pertsonala egiteko, bere aurrerapena ezagutzeko eta unerik zailenetan kontrola hartzeko aukera ematen diona”, Mongelosek azaldu digunez. Horrela, zigarroaren kontsumoaren murrizketarekin hasten da eta “erorketen” prebentzioarekin amaitzen da.

Esperientzia pertsonala

Mongelosek urteetako esperientzia du pertsonen erretzen uzten laguntzen eta, bere hitzetan, “persona eta talde bakoitzarekin izaten dudana esperientzia berria da”. Erretzeari uzteko prozesuak gauza batzuk komunean dituzten arren, prozesua, momentua, bizipena eta abar pertsona bakoitzarenak dira diosku. “Horregatik da hain garrantzitsua erretzeari uzteko bakoitzaren bidea aurkitzea eta bilaketa horretan, behar izanez gero, laguntza eskatzea”, azpimarratzen du.

Erretzeari lagatzeko saioak aurrez aurre edo online egiteko aukera eskaintzen dute

Guztira hamaika saio izango dira: hasierako bederatzia astean behin egiten dira, hamargarrena 6 hilabetera eta hamaikagarrena urtebetera



EKHI BELAR

Kroketak guztiontzat

Astelehen Urdinak, ustez (zerbait esateagatik) urteko egun tristeenak, Kroketaren Egunari paso ematen dion munduan bizi gara. Horrela, gordinik, trantsiziorik gabe. Ez dakit, tartean Mendira Joateko Eguna jarri, edo horrelako zerbait, gosea egiteko. Baina tira, gauero reset egiten dugun gizartea ere bagara, 24 ordu baino gehiagoko memoriarik edukiko ez bagenu bezala. Are gehiago, tarte gutxiagoan egiten dugu reset batzuetan. Atentzio falta da edo gurea ez den beste guztiak bost axola digu?

Gazatik datozen irudi lazgarriekin hunkitzen gara, baina erraz pasa gaitzke fribolitate hutsezko saio bat ikustera. Eta zein ondo, zein dibertigarria. Eta, jakina, zergatik ez hori egin? Nahikoa dugu gurearekin eta ezin gara kezkatu munduan gertatzen ari den guztiaz.

Eibarren ere gertatzen dira gauzak. Jaso burua mugikorretik edo laga garagardoa barran momentu batez eta begiratu ingurura, izkinetara. Ez dira ikusezinak, herriko paisaiaren parte bihurtu badira ere, hor daude eskaleak. Kanean daudenak, noski, beste batzuk auskalo non.

Herriko toki batzuetan egoera jasangaitzean bizi diren migranteak jaso dituztela jakin dugu aste honetan. Eta ez hori bakarrik: lanean esplotatuta eduki dituzte eta, gainera, eurek ordaintzen! Hemen gertatu da, hor alboan. Eta auskalo zer gehiago gertatzen den gure zementuzko lorategian. Ah, baina migranteak dira, eman kroketa bat.

Hemendik lezio gutxi, niri ere kroketak gustatzen zaizkit, baina edozer gauzarekin ezin da kroketarik egin, bexamelak ez du dena aguantatzen.

“Gazatik datozen irudi lazgarriekin hunkitzen gara, baina erraz pasa gaitzke fribolitate hutsezko saio bat ikustera”



Aspek binakako finalerako sarrerak zozketatuko ditu berriro etziko jaialdian

Arrakastatsua izan da Eibarko pilota enpresak hartutako erabakia eta oraingoan ere zaletuei aukera berbera eskaintzea erabaki du etziko. Jaialdiak bestela ere interes berezia baduen arren, hori pizgarri gehigarria izan daiteke pilotazalearentzat. Zozketa irabazten duenak Navarra Arenan martxoaren 31n jokatu den binakako txapelketa nagusiko finala ikusteko bi sarrera eta 250 eurotan baloratutako bi laguntzako bazkariak osatutako saria bereganatuko du. Horrela, Astelenako kantxako jarlekuak hartzen dutenek bi boletu jasoko dituzte zozketan sartzeko eta gradakoek bat. Pilotazaleen

fideltasuna saritzeko abenduaren 17an hasitako ekimena Astelenakoarekin eta otsailaren 4ko Donostiako Atanoko jaialdiarekin amaituko da.

Domekako jaialdiari dagokionez, Ezkurdia-Tolosa eta Altuna-Martija bikoteek neurtuko dituzte indarrak partidu nagusian, bikote bientzat garrantzi handiko neurketa izango den lehian. Aurretik Salaberria-Arbizu eta De la Fuente-Bikuña bikoteak ariko dira, nor baino nor, promozioako binakako txapelketaren norgehiagokan. Eta, amaitzeko, Egiguren-Eskuza eta Exposito-Gaskue bikoteek jokatuko dute azken partidua.

Bihar amaituko da Neguko Bola txapelketa

Barinagako bolatokiak hartuko du bihar, 17:00etatik aurrera, Neguko Bola txapelketa-ko laugarren eta azken jardunaldia. Asola Berriko bolatokian hasi zen torneoak Markinan eta Elgetan izan zuen jarraipena amaierara ekarriko digun azken jaurtialdiaren aurretik. Une honetan Sebas Aranzabal elgetarra da liderra, 16 txirlorerekin, oso gertutik hainbat bolarik jarraitzen badiote ere, tartean Asola Berrikoek. Borroka latza aurreikusten da, beraz, biharko lehiarako.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Valencia (etz, 16:30)

Gizonezkoen 2. Maila

Huesca - EIBAR (etz, 18:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR B - Tolosa (etz, 12:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Pasaia - VITORIA (gaur, 19:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Ugao (etz, 15:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila

EIBAR URKO - Ordizia (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Soraluze (bihar, 18:00)

Jubeniletako Ohorezko Maila

EIBAR - Santutxu (etz, 15:30)

Jubeniletako Liga Nazionala

Hernani - EIBAR B (etz, 12:00)

Kadeteetako Euskal Liga

EIBAR - Real Sociedad (bihar, 12:30)

FOBALI-ZALETUA

- Baserri - Garajes Garcia (bihar, 09:00)
- Gastro Gilda - Xania (bihar, 10:30)
- Limpieza Rueda - Malape (etz, 09:00)
- BOJ - Adahi Eraieder (etz, 10:30)

ESKUBALOA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Lauko Ermuko (bihar, 18:30)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Beti Onak - MEK EIBAR (bihar, 20:00)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

Eraiken - MEK EIBAR B (bihar, 17:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Donibane - MEK EIBAR B (etz, 12:45)

FRRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko Liga

EIBAR - Rugby Barça (etz, 12:00)

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

EIBAR - Betsaide Elorrio (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

Elx Waterpolo - URBAT (bihar, 18:00)

Gizonezkoen Euskal Herriko Kopa

URBAT B - WP Donosti (gaur, 21:30)

Emakumezkoen Euskal Herriko Kopa

Barakaldo - URBIAK (bihar, 16:45)

PILOTA

Binakako Promozioko Txapelketa

Salaberria-Arbizu vs De la Fuente-Bikuña

Binakako Txapelketa Nagusia

Ezkurdia-Tolosa vs Altuna-Martija

3. partidua

Egiguren-Eskuza vs Exposito-Gaskue

(etz, 17:00, Astelena frontoia)

Txirrindulari Elkartearen egutegia azken urteotako bidetik joango da

Aurreko zapatuan Portalean egin-dako Urteko Ohiko Batzarrean onartu zutenez, Eibarko Txirrindulari Elkarteak aurten ere bost proba antolatuko dituzte, otsailaren 25ean hasi eta ekainaren 16an amaituko den egutegiari jarraituz. Historia luzeena duen proba jubencil mailako San Juan Sari Nagusia izango da: ekainaren 16an jokatzekoa 88. edizioa iritsiko da. Afizionatuen mailako estatuko probarik garrantzitsuenak, Valenciaga Memoriala, 53. edizioa iritsiko da aurten, maiatzaren 5ean jokatu den lasterketan; eta iaz jokatu barik geratu zen junior mailako Udaberri Sariaren 46. edizioa jokatu da otsailaren azken domekan. Bi proba berrienak, bestalde, zazpigarren eta seigarren edizioetara helduko dira 2024an: kadeteen mailako Txirrindulari Elkartearena Errepublikaren egunean izango da, apirilaren 14an; eta UCI mailako emakumezkoena



Emakumezkoen Eibar Hiria Sariaren seigarren edizioa maiatzaren 26an jokatu da.

maiatzaren 26an egingo dute, Euskal Jaia tartean izanda helmuga T. Etxebarriatik Arratera aldatuta. Azken proba hori, gainera, mailaz igoko da oraingoan.

Batzarrean onartu zutenez, eta ohiko bidetik, egutegia otsailaren 18an hasiko dute, Udaberri Kontzertuaren 15. edizioarekin. Ixteko, bestalde, Bizikleta Egunaren 19. edizioa izango da irailaren 29an eta Txistorra Egunak 20.a biziko

du azaroaren 23an. Bileran azpimarratu zutenez, proba-egunetarako laguntzaileen beharrean daude eta bazkideen kolaborazioa eskatu zuten; azken denboraldian probak antolatzeko orduan izandako arazoak oraindik ez direla konpondu ere azaldu zuten. Hori dela-eta, lagundu nahi dutenek 943203480 zenbakira deitu dezakete edo, bestela, clubciclistaeibarres@gmail.com helbidera idatzi.

Vitoria filiala mailaz igotzeko hautagaitza aurkezteko tenorean

Badirudi oraingoan baietz, 3. RFEF mailatik igotzeko asmoak errealtate bihurtzeko aukera gehiago dituela Vitoria Eibar FT-ko filialak. Azken urteotan taldea ez igotzearen ondorioz atzetik datorrenak

(Erregionaleko Ohorezko Mailako Eibar Urko), nahiz eta txapeldun izanda igotzeko txartela bereganatu, ezin izan du mailaz igo, talde biak ezin daitezke-eta maila berean egon. Oraingoan indartsu dabil

Vitoria bere mailako IV. multzoan eta, dagoeneko, sei puntuko alde ateratzen dio Beasain bigarren sailkatuari eta 11 atzetik datozen Portugalete eta Basconiari. Oraingoan martxa berean ez doana Eibar Urko da, baina azken asteotan gora egin du eta, Aretxabaleta, Zarautz eta Mutrikuren atzetik, laugarren digu sailkapenean, lehenengoko bietatik hiru puntura eta Mutrikurengatik bira; beraz, tartea dago oraindik Ohorezko Maila horretako txapela janzteko beste behin eta, horrela, Vitoriak lehen postu horri eusten badio, biak aldi berean igotzeko aukeraren aurrean egongo ginateke. Euren multzoetako ligak irabazita, biak zuzenean igoko liriateke.



13 partidu daramatza Vitoriak galdu barik, euretako azken zortziak irabazita gainera.



Eibar Rugbyren partiduak bihar eta etzi Unben

Kostatzen ari zaie garaipenak lorzea denboraldi honetan, bai Oho-rezko Mailan jokatzen duen emakumezkoen taldeari eta, zer esanik ez, Euskadiko maila Erregionalean jokatzen diharduen gizonezkoenari. Dena dela, itxaropentsu ekingo diete asteburuko partiduei, zale-tuen laguntza ere alde izango baitute Unben. Bihar arratsaldean, 16:00etan hasita, gizonezkoen taldeak Betsaide Elorrioko taldea hartuko du, Durangorekin galdu eta gero. Guntinen taldeak, bestalde, Rugby Barça izango du aurkari etzi, eguerdiko 12:00etan hasita.



Urteko lehen txangoa Ganekogortara egin zuten Deporrekoe; argazkian, Pagasarrin.

Hilaren 27an ekingo diote Deporrek mendizaleek Klubaren Buzoiak txangoei

Eibarko Klub Deportiboak 100 urte betetzen dituela-eta, urte guztirako prestatutako aktibitateen artean Mendi Batzorrekoe txango multzo berria sortu dute, "klubeko bazkideek jarritako buzoiak ezagutzeko, bazkide ohien omenez". Zapatu horretako ibilbidea Zerainen hasiko da eta Zegaman amaituko, tartean Arripillatako buzoia bisitatzeko. 08:00etan irtengo dute Ego-Gainetik eta itzulera 17:00 aldera izatea aurreikusten dute, 19 kilometroko ibilbidea osatu eta gero.

Zerainetik irtenda, zazpi kilometro eta erdira egingo dute topo 864 metroko Arripillatarekin. Bertako buzoia Jesus Kruzelaegik jarri zuen 1976ko ekainaren 5ean, eta handik 30 urtera, 2006ko maiatzean, Brinkolako mendiko taldekoek berriro zuten. Ondoren 865 metroko Elortxikiko gaina ere egingo dute eta, behin Oazurtzako txabolak pasatu, bi ibilbideren artean aukeratu ahal izango dute parte-hartzaileek Zegaman zeharkaldia amaitu aurretik.

Andoni Mayo hirugarren izan zen IV. Eibarko Txakurkrosean

Andoni Mayo eibartarrak hirugarren postuan amaitu zuen bikejoring proban eta postu bera eskuratu zuen Nagore Angiozarrek herri-lasterketako proban. Hori bai, Arratekoa antolatu zuten Amarok taldeko ordezkariak nagusitu ziren jokatutako lasterketetan.

Euskadiko Txakurkros Ligako proba nagusian Iñaki Rodriguez eta Olatz Zabala izan ziren garai-leak. Lehenengoak, Ika txakurra lagun zuela, 34 minutu eta 3 segundo behar izan zituen ibilbidea



osaten zuten 9 kilometroak egiteko; Olatz Zabalak, bestalde, 41 minutu eta 59 segundo behar izan zituen. Arraten hasi eta amaitu zen proban -hori bai, Kalamuatik pa-

satuta-, Lander Parrak (38:22) eta Xabier Agirrek (39:21) osatu zuten podium bat, eta Maite Sanchezek (44:13) eta Aida Maria Malesek (45:34) bestea.

Aurretik jokatutako bikejoring modalitatekoan, hau da, bizikleta gainekoan, Ekaitz Erauskin eta "Turbo" izan ziren onenak (19:51), Xabier Diliz bigarrena minutu erdira helmugaratuz. Proba horretan Andoni Mayo eta "Dexter" hirugarren izan ziren 7 kilometroko proba gogor horretan.



Jorge Iturricastillo Ugalde

1. URTEURRENA
2023/01/21



Gaur iluntzean ere deituko dizugu ea zer moduz zauden jakiteko, zu behar den bezala baldin bazaude gu ere ondo egongo garelako.

Irrifar bat oroimenean argi izpi bat gure bidean arrazoi bat borrokatzeko bizitzari aurre egiteko.

- ETXEKUAK -



Fernando Eguren Elkoro

1942/03/15 – 2024/01/13

Hainbeste momentu on, hainbeste barre-alfara, zure bizitasuna, zure txispa, zure indarra. Hori dena eta gehiago betiko gure bihotzean.



FAMILIAREN IZENEAN, bihotz-bihotzez, gure ESKERRIK BEROENA lagundu diguzuen guztio!



Benigna Lasuen Urkidi

1922/03/15
2024/01/16



Aulestiko Txoridjenetik Katalangura, Katalangutik Errekatsu-Bista-Ederrera, bizitzak asko emon deutsu, Benina, baiña baiña zeuk pe bizitzari!! Atsedean hartuizu oia, laiforik bako zerutik!!



Pedro Albizuri Maguregi

2. URTEURRENA
2022/01/15

“Urteak pasa arren, BETI BEZAIN GERTU SENTITZEN ZAITUGU”



- ETXEKOAK -

FUNEUSKADI
Single Services



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



TANATORIO KREMATOARIO
REGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xullion, s/n. SIGMA Industriaidea (Diasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Jorge Iturricastillo Ugalde

1. URTEURRENA
2023/01/21

“Zure bizipoza, guretzako eredia. Betirako izango zara gure bihotzetan”



ZURE LAGUNAK: NEREA eta GOIKOETXEA FAMILIA

“‘Gautegia’ ‘Nocturama’ da, Nick Caveren abestiak dira, baina beste begi batzuekin ikusiak”

TXUMA MURUGARREN • Musikaria



Nick Caveren ‘Nocturama’ diskoa oinarri hartuta, Txuma Murugarrenek ‘Gautegia’ diskoa kaleratu du. Hori bai, errenteriarrek ez du musikari australiarraren abestien bertsio hutsa egin, bere egin baizik. Ilun eta dotore, Murugarrenek Caveren doinuak gurera ekarriko ditu domekan.

Txuma Murugarren Portalea Musika Kluba saioan izango dugu, 19:00etan, Rafa Acevesekin (piano) eta Natxo Beltranekin (bateria) batera. Errenteriako musikariak esan digunez, gertuko kontzertua izango da, gezurrik esaten ez duen horietakoa.

Ibilbide luzea egin duzu musikan, baina berritasun batekin zatoz, Nick Caveren ‘Nocturama’ izan duzualako oinarri diskoa sortzeko orduan. Zergatik sortu duzu horrelako zerbait?

Egia da lehen aldia dela horrelako zerbait egiten dana. Inoiz ez dut beste musikarien bertsiorik egin, baina orain dela 8 edo 9 urte Izar&Star zikloa egin zuten Bilbon eta Jerry antolatzaileak hemengo musikari batzuei proposatu zigun gustoko musikari bat hartzea eta kontzertuak eskaintzea. Orduan, hiru kontzertu emateko banda biltzea eta abar gehiegizkoa iruditu zitzaidan, baina Nick Caveren ‘Nocturama’ diskoa gurtzatu zitzaidan bat-batean, kotxean nihoala, irratian. Diskoa ezagutzen nuen, gustatzen zitzaidan eta, Nick Caveren zaletu amorratua izan ez arren, Rafa Acevesek eta biok modu duinean horrekin zerbait egiteko gauza ginela iruditu zitzaidan. Horrela egin genuen eta oso ondo gelditu zitzaigula iruditzen zait. Euskarara

pasatu nituen hitz guztiak eta abestien hezurdurak gertutik landu nituen. Orain dela gutxi Jerryrekin Eibarren egin nuen topo eta gaia irten zen berriz ere. Demaseko lana genuen egina eta horri berriz heltzea pentsatu nuen. Taldea bildu nuen eta ‘Nocturama’ itzultzeko esan nien. Horrela, goiz batean estudioan bildu eta arratsaldeko lehen ordurako dena grabatuta genuen. Oso arina izan zen, esperientzia polita. **Beste artista baten lana oinarri hartuta, nola erabaki duzu noraino eskua sartu?**

Aurretik esperientzia bat izan nuen, Jonan Ordorikak Lou Reeden omenezko diskoan parte hartzea proposatu zidalako. Ordorika eta Lou Reed lagunak ziren, eta lehenak Azkaraten zuen etxean egona zen. Lou Reed hil zenean, Ordorikak omenezko diskoa egin nahi izan zion eta letren itzulpenak egin nituen, baina kontua ez da itzultzea bakarrik, abestiak moldatu ere egin behar direlako, metrikak eta tempoek bat egin ditzaten. Lan polita izan zen eta duin geratu zen. ‘Nocturama’-ren kasuan, ez nuen zentzuzkoa ikusten ingelesez egitea. Herri honi ekarpena egin nahi badiot, euskaraz egitea iruditzen zitzaidan aproposena. Orduan, Lou Reeden diskoaren esperientzian oinarritu naiz, baina noraino sartu eskua? Hasieran, itzulpen oso zehatza egin nuen, ia-ia hitzez hitz; eta gero, abesten hasten



“Zure musika ematen duzunean, oso gauza pertsonala da. Oso modu pertsonalean hartzen dut egiten dudana”

“Ez naiz Nick Caven zale amorratua, baina gustatzen zait. Ez naiz batere mitomanoa”

zarenean, hori manipulatzeko hasten zara. Esku artean duzun materialari diozun beldurra da gakoa, ez zaitzala beldur horrek gainditu. Pentsatzen nuen diskoa lau lagunek entzungo zutela, ez nuen pentsatzen Nick Cavek entzungo zuela. Gogoratzen dut behin, Bilbo Hiria irratiantzat ‘Nocturama’ diskoko ‘I’m fired’ abestia grabatu nuela. Kantua egiteko baimena eskatzeko orduan, Nick Caveren editoreek euskarazko hitzak eskatu zizkiguten, ingelesezko berbekin zuten aldea ikusteko, baina ia hitzez hitz itzuli nuen, ez zegoen ia alderik. Egia da, hala ere, beste musikari baten gauza bat hartzen duzunean, zure egiten duzula neurri batean edo bestean. ‘Gautegia’ ‘Nocturama’ da, Nick Caveren abestiak dira, baina beste begi batzuekin ikusiak dira, bai letrak bai instrumentazioa. Beste disko bat da, baina ‘Nocturama’-ren berrikuspen bat dela esan daiteke.

Rafa Acevesen eta zure artean egingarri ikusi zenuen ‘Nocturama’ zeure egitea, baina zergatik aurrera egin diskoa sortu arte? Ez zen izango momentuko burutazio bat, ez?

Ba momentuko burutazioa izan zen. Proposatu zidaten eta buruan nuen egin edo ez, eta egitekotan, nola egin. Irratian entzun nuenean piztu zitzaidan bonbila. Ez naiz Nick Caveren zale amorratua, baina gustatzen

zait. Ez naiz batere mitomanoa. Musika asko gustatzen zait, baina ez dut jendea mitifikatzen. Agian horregatik egin nuen aurrera, hortik datorren ausardiatik. **Disko honen aurrekoa bost urte lehenago grabatu zenuen. Nola zehazten dituzu denborak eta erritmoak?** Bakarka hasi nintzenean, lehen lau diskoak jarraian kaleratu nituen, urtero bat. Gerora, tartea handitzen joan zen. Zure musika ematen duzunean, oso gauza pertsonala da. Oso modu pertsonalean hartzen dut egiten dudana. Duen oihartzunari begira, jarraitzeko gogoia eman ahal dizu edo pentsatzea ea zergatik egingo duzun eta zertarako. Hor mugitzen naiz. ‘Gautegia’ kaleratu arte atera nuen azken lana single bat izan zen. Esperimentaziorako balio izan zidan. Hamar abestiko diskoa merkatuan jartzen duzu, bi abesti besterik ez dira entzuten eta hirugarren hilabetean desagertu egiten da. “Zertarako egiten dut hau?”, pentsatzen duzu. Atera beharrean, diskoak bota egiten dituzula dirudi. Horrek zer pentsatu ematen dizu, ea zure lanak horrelako ataka merezi duen ala ez. Horregatik, batzuetan motelago zabilta, beste batzuetan gehiago ilusionatzen zara... Orain disko berria egiten hasi naiz, zirriborroak grabatzen beste musikariek entzun ditzaten. Izan ere, azken aldi bezala, diskoa musikari guztiekin batera grabatuko dut estudioan.



'Gautegia' da Txuma Murugarrenek kaleratu duen azken diskoaren izenburua.

Abesti bakoitzari hiru buelta eman, bertsiorik onena hartu eta kitto. Ez da hilabeteko grabazio aspergarri horietako bat izango.

Hori bai, ia beti bezala, Gaztelupeko Hotsak ekoiztetxearekin, ez?

Bai. Gazteluperekin ondo konpontzen naiz. Beti onartu eta on hartu dituzte nire burutazioak eta beti egin dugu aurrera ilusioarekin. Urte hauetan egin duten apostua eskertzen diet. Gainera, bestela zein da musikariek dugun aukera? Guk geukekoiztea? Sasoi batean modan jarri zen, nahiz eta gaur egun ez den hainbeste entzuten. Zure lanaren inguruan kontrol guztia edukitzea, autoekoiztea... Nire buruari esaten diot: "Nola hasiko zara orain diskoak saltzen, publizitatea egiten eta abar? Nora joko duzu?". Gogorik ere ez daukat. Gainera, ez dakit neure burua saltzen. Imajinatzen dut autoekoizketa egingo banu, 600 disko kaleratuz gero, ganbaran 500 geratuko lirakeela.

Disko berria zure abestiekin egingo duzu?

Bai. Zer egin pentsatzen ari gara. Ez dut 11 kantuko disko luze bat egin nahi, baina ezta single bat ere, ez duelako behar besteko pisurik oihartzun minimo bat edukitzeko. Orduan, agian grabazio luze bat egingo dugu eta kantuak pixkanaka eman, bosnaka edo seinaka, ikusiko dugu.

'Gautegia' kaleratu ondoren zenbait zuzeneko eskaini dituzu. Nolako saioak izaten dira?

Asko ibili gara hirukote bezala. Rafa Aceves pianoan, Natxo Beltran baterian eta hirurok. Bigarren diskoa grabatu nuenetik gabiltza horrelako formatuan eta, halabeharrez, oso landua dugu. Oso gertukoa da eta abestiak oso modu berezi eta intimoan entzuten dituzu. Horrek ez du esan nahi kontzertu motelak direnik edo lanbro azpiko soinua egiten dugunik. Abestiek bizitasuna dute. Oraingo honetan, Eibarrera joateko eta gainerako kontzertuetarako, baxu-jolearekin joatea pentsatu dugu, Miguel Ramirezekin. 'Sasoi ilunak' taldearen sasoiak gitarra-jole moduan ibili zen eta bakarkako disko askotan ere egon da. Azkeneko singlean baxua jo zuen eta baita 'Gautegia' diskoan ere. Horrek lana kentzen dio piano-joleari, baxu-jolerik ez balego berak eman beharko lukeelako soinua hori. Beraz, Rafarentzat lan gutxiago izango da. Beharbada gutxiago kobratu beharko luke (barreak).

Gertuko saioa izanik, Portalea aproposa izan daiteke horretarako, ezta?

Inoiz ez naiz izan jendetza erakartzen duen horietako bat eta horregatik diot kontzertu askotan hirukote gisa joan garela. Normalean areto txiki eta ertaintan jo izan dugu. Kontzertu zintzoak izaten dira.



Miguel Iriondo eta Enrique Agote eibartarren argazkiak ikus daitezke Bilboko Kunan

FACOGI Gipuzkoako Argazkilaritza Artistiko Garaikideak antolatuta, aurreko asteaz geroztik “Tres miradas, un mundo” izenburuko argazki-erakusketa kolektiboa ikus daiteke Bilbon, BBKren Kuna erai-kinako areto nagusian. Otsailaren 1era arte zabalik egongo den erakusketa solidario horretan Carmen Verde, Miguel Iriondo eta Enrique Agote (azken bi hauek eibartarrak) argazkilarien naturari buruzko lanak ikus daitezke. Erakusketan bertan, “Caminar en sus zapatos” argazki-liburua aurkeztuko dute. 2020an eman zuten argitara liburua, Agoteren argazki eta Iriondoren testuekin, Sanfilippo sindromea duten hiru haurren ama baten omenez. Erakusketa-ko lanak salgai daude, eta lortzen den diruaren erdia sindrome hori dutenen Euskadiko elkarteari laguntzeko izango da.

Haur eta nerabeen gurasoei zuzendutako hitzaldia Portalean

Urtarrilaren 30ean eskainiko dute haurren eta nerabeen gurasoentzat “Arauek eta mugak familian: nola ezarri era asertibo batean” hitzaldia. Eibarko Udalak eta Gipuzkoa Foru Aldundiak antolatuta, Portaleko Areto Nagusian izango da, 18:30etik aurrera. Gaztelerez izango da, eta parte hartzeko aurretik izena eman beharra dago, Eibarko Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta. Izenematea urtarrilaren 28an itxiko da.



Musikeneko metal eta perkusio taldearen kontzertua

Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegiaren ikasketa-planaren eskutik, kontzertua eman- go du *Musikene Ensemble*-k egunean, 19:00etan Coliseon. Metal eta perkusio taldeak Aaron Copland, David Rivas Dominguez, Alexander Borodin, Miguel Etchegoncelay, Pyotr Ilyich Tchaikovsky, Ronden, Carl Wittrock eta Enrique Crespo musikagileen lanak interpretatuko ditu, Luis Gimeno Perezen zuzendaritza-pean. Sarrerak 5 euro balio du.



Britainiarrek gure futbolean izandako eragina lantzen

‘The British influence in our football: Fred Petland and the Basque Country’ erakusketa egingo dute apirillean Ipuruako Merkatu Plazan eta, hori prestatzeko, gaur bigarren saioa egingo da bertan, 18:00etatik 19:30era. Adin guztientzako moduko jarduera dela adierazi dute antolatzailleek. Parte hartzeko aurretik izena eman behar da (614 131 174 Whatsapp). Britainiarrek gure futbolean duten eraginari buruzko ingelesezko jardue- ra Nerea Mendikute eibartarraren proiektu batean oinarrituta dago. Gerratik ihesi, 4.000 haurrek emi- gratu zuten 1937an Erresuma Batura, eta horietatik hamabost futbolari profesional bihurtu ziren. Saioe- tan erakusketarako materiala prestatzen joango dira.



Marie de Jongh konpainiak “Bo Jauna” taularatuko du

Publiko guztientzako testurik gabeko antzerkian espezializatua dagoen Marie de Jongh konpainiak “Mr Bo/Bo Jauna” aurkeztuko du Coliseo antzokian bihar, zapatua, 17:00etan. Jokin Oregik zuzenduta, pieza berri honek maskara eta clowna uztartzen ditu, eta hitzik gabeko ikuskizuna da. Antzezlanak boterea du hizpide, “umorea, barreak, dibertsioa eta maskara oso bereziak erabiliz. Zer da boterea? Nork erabiltzen du? Nola erabiltzen da? Zer egiten gaitu tirano?”. Antzezleak Ana Martinez, Ana Meabe, Javier Renobales eta Anduriña Zurutuza dira eta sarrerak 5 euro balio du.



Iker Valleren pintura erakusketa Portalean

Gaur arratsaldeko 19:00etan inauguratuko dute Portalean Iker Valleren (Andoain, 1976) “Barne bibrazioak” izenburuko pintura-erakusketa. Erakutsiko dituen koardroetan paisaiak sortzeko ideian sakontzen jarraitzen du artistak, zuhaitzen bertikaltasunean inspiratuta. Erakusketan artistaren lanik berrienak ikusi ahalko dira, natura ardatz duten beste hainbatekin batera. Otsailaren 18ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



Danborradaren kontzertua emango dute domekan

Orain dela 25 urte baino gehiagotik hona urtero egiten duen bezala, aurten ere Danborradari eskainitako kontzertua emango du Usartza Txistulari Taldeak, San Sebastian eguna ospatzeko. Enrique Montero zuzendariaren berbetan, “hasierako formatuan Txistulari Banda aritzen zen bakarrik, ondoren danbor eta kupelen laguntza gehitu zitzaion emanaldiari, eta geroago metal boskote batena”. Usartza Txistulari Taldearekin batera, Eibarko Danborradako ordezkariak eta metal boskotea (Unai Cabanzon, Danel Montero, Iñaki Orbegozo, Markel Uribarren eta Jesus Rioja) arituko dira domekan, 12:30ean Coliseon hasiko den kontzertuan. Beti bezala, Sarriegiren doinuak eta Eibarko, Mutrikuko, Debako... danborradetako abestiak entzun eta kantatuko ditu publikoak.

Operaren grabazioa eskainiko dute bihar arratsaldean Coliseon

Giacomo Pucciniren “Madame Butterfly” lana emango dute Coliseoko 2 Aretoan bihar arratsaldez. Austriako Bregenzer Festspielen grabatutakoa, bertsio digitalean eskainiko dute, diferituan. 19:30ean hasiko den emanaldiak bi orduko iraupena du eta italieraz kantatzen dute bertan, gaztelera azpigituluekin.

eFilm zerbitzua eskuragarri dago



Jakinarazi dutenez, filmak online ikusteko doako zerbitzua, eFilm, eskuragarri dago eLiburutegian. Horrela, pelikulak telefono mugikorrean, tabletean eta telebistan (smartTV) ikusi ahal izango dira, doan, eLiburutegiko betiko erabiltzaile eta pasahitzarekin.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	5	7		8	3		
					4		8
		8		2			
5				9	7		2
	6		1		3		5
2			5	6			1
			3			2	
8		3					
		5	9			1	8

C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P
C	B	I	B	J	A	O	Z	P

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			2		6		
1	3				9	2	
	6	1					
	2	9			8	5	
9		7	5			3	
6	3		4	9			
			4	3			
4	8			7		9	
	6		5				

B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T
B	D	L	I	S	E	R	T

soluzioa



AURKITU 15 EZBERDINTASUNAK



Urtarrilak 19 - 25

BARIXAKUA 19

INGELESA

18:00/19:30 "The British influence in our football: Fred Pentland and the Basque children". Ipuruako Merkatu Plaza

INAUGURAZIOA

19:00 "Barne-bibrazioak", Iker Valleren margolan-erakusketa. Portalea.

ZAPATUA 20

HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin). Astelena frontoia.

ANTZERKIA

17:00 "Bo jauna" (Marie de Jong). Familia osoarentzat, euskaraz. 5 euro. Coliseo.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat eta haien familientzat. Ipuruak kiroldegia.

IPUIN-KONTALARI MUSIKATUA

18:00/19:00 "Uxa-uxa beldurra", Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtadoren eskutik. Ipuruako Merkatu Plaza.

MANIFESTAZIOA

18:30 "Palestina aske", Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek deituta. Untzaga.




OPERA

19:30 Giacomo Pucciniren "Madame Butterfly". Austriako Bregenzer Festspielen grabatuta. Bertsioa diferituan. Coliseo.



MUSIKA

20:00 Guridi Rock: poteo rockeroa.
22:00 Rock bertsioak, Kabaren eskutik.
23:30 Gau girotua. Guridi taberna.



DOMEKA 21

UMEENDAKO TAILERRA

11:30-13:00 Maushaus arkitektura tailerra, 7-11 urte bitartekoentzat. Ipuruako Merkatu Plaza.

MUSIKA

12:30 Danborrada kontzertua, Usartza Txistulari Taldearen, Eibarko Danborradaren eta metal boskotearen eskutik. Coliseo.



MARRAZKI LEHIAKETA

16:30 Haurrentako Gabonetako Marrazki Lehiaketa eta txokolate-jana. As Burgas Galiziako Etxea.

MUSIKA

19:00 Portalea Musika Kluba: "Gautegia", Txuma Murugarrenen eskutik. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalea.



EGUENA 25

HITZALDIA

10:00/12:00 "Gaur egungo euskal literatura", Asier Serrano Lasaren eskutik. Euskaraz. Sarrera librea. Armeria Eskola.

PINTURA TAILERRA

16:30/18:00 Esteban Orozen eskutik. Ipuruako Merkatu Plaza.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Emaileentzat odola emateko saio. Untzaga Jubilatutako Etxea.

MUSIKA

19:00 Musikene Ensemble. 5 euro. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 31ra arte:

- "KAPADOCIA", Jose Luis Irigoienek argazkiak. (Portalea jatetxea).
 - "LA LUZ OCULTA", Jorge Amedo, Vicente Selles eta Txemi Ircioren argazkiak. (Eibarko Klub Deportiboaren taberna).

Otsailaren 18ra arte:

- "TXIRRINDULARIA", JOSE ZUGASTIrena. (Armagintzaren Museoa).
 - "BARNE-BIBRAZIOAK", Iker Valleren margolanak. (Portalea).

Otsailaren 29ra arte:

- "EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKArena. (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **20an:** 22:30
- **21ean:** 20:00
- **22an:** 19:30

“La zona de interés”
DOKUMENTALA



2023/Erresuma Batua/106'
Zuzendaria: Jonathan Glazer
Aktoreak: Sandra Hüller,
Cristian Friedel, Ralph Herforth
Holokaustoa/Nazismoa

2 ARETOA

- **20an:** 22:30
- **21ean:** 17:00, 20:00
- **22an:** 19:30

“Fallen Leaves”
KOMEDIA



2023/Finlandia/81'
Zuzendaria: Aki Kaurismäki
Aktoreak: Alma Pöysty, Jussi
Vatanen, Anna Karjalainen
Erromantzea/Alkoholismoa

ANTZOKIA

- **20an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **21ean:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **22an:** 19:30

“Los que se quedan”
KOMEDIA DRAMATIKOA



2023/AEB/133'
Zuzendaria: Alexander Payne
Aktoreak: Paul Giamatti,
Dominic Sessa, Da'Vine Randolph
Unibertsitatea/70.eko urteak

ANTZOKIA

- **20an:** 17:00 (2 aretoa)
- **21ean:** 17:00

“Kina & Yuk”
ABENTURAK



2023/Frantzia/80'
Zuzendaria: Guillaume
Maidatchevsky
**Drama/Animaliak/
Zine familiarra**

garbibox
eco-garbitetak
limpieza - reciclaje

TAPIZARIA + AUTO GARBIKETAK
Urtzi Anixustegi (688 649 837)
09:30/19:00 **EROSKI-n**

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

**ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK**

Urtezu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LUKA!** 12 urte! Oso ondo ospatu bixar zure eguna, famelixia eta lagun artian. Patxo erraldoia danon eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, **AIUR** Sarasketa Santos, atzo 7 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixia guztiaren eta, batez be, Izaro eta Ederren partez.



Zorionak, **MALEN.** 9 urte bete dozuz! Besarkada erraldoia eta patxo potoluak etxekuen partez.



Zorionak, **MIKEL!** Musu haundi bat etxeko guztien partez. Gora gure Superman!



Zorionak, **HARAN!** Hillaren 18xan 4 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez! Illargira eta bueltan maite zaittugu.



Zorionak, **IRAIA,** neska haundi, astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta batez be Xabiren partez!



Zorionak, **INTZA!!** Martitzenian 9 urte bete zenduaz-en-eta. Bagabiz ospatzen! Patxo bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, **EIDEN!!,** bixar 7 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **ANDER,** gure txapelduna! Domekan 5 urtetxo beteko dozuz-eta. Musu pilla bat eta besarkada erraldoia famelixia guztiaren partez.



Zorionak, **DANEL IZEI,** domekan urtetxua beteko dozu-eta. Hainbeste maite zaittuen famelixia guztiaren partez.



Zorionak, **MANEX,** hillaren 22xan 3 urte, txapeldun! Musu haundi bat famelixia guztiaren partez!



Zorionak, **ANE,** gaur 18 urte betetzen dozuz-eta! Ondo ospatu zure adin-nagusittasuna. Famelixia guztiaren eta, batez be, Iraiaren partez.



Zorionak, **ANDER,** martitzenian zure urtebetetze eguna izan zalako. Domekan ospatuko dogu!!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskararak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Emakumeak 2 logeleko pisua hartuko luke errentan Eibarren. Kontratu finkoarekin. 688744217. Ivon Peña.
- Emakume batek 2 logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan. 603258452.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Txomon garaje itxia alokagai. 615775536.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria laguntzaile tituluarekin. 688818176. Rosa.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo pasiatzeko eta peoi bezala. 604220024.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 641417815.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez edo ospitalean ere. Orduka. 632768653.

- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. 602393678.
- Emakume arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako, batez ere interna moduan. Esperientziarekin. 632270215.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 637222318 eta 642577823.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 601511174.
- Gizona eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 679412841. Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Baita gauez ere. Orduka. 602490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.

4.2. Langile bila

- Zerbitzari euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 634277015.
- Astebururako mahai-zerbitzaria behar dute jatetxe batean. Esperientziarekin. 604203896.
- Administratibo/auxiliar edo aho eta hortzetako higienista behar da. Bidali curriculum-a: hortzklinika.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Goi mailako jazz kontrabaxuko ikasleak musika teoria, baxu elektriko eta kontrabaxuko klaseak ematen ditu. 673366678. Alex.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- 105 zm-ko ohe artikulatua (triangeluarekin eta ezkerreko barrarekin) salgai. Gurpil-aulkia + motorra, eta bainugelako gurpil-aulkia. Bakoitza bere aldetik erosi daiteke. 634410873 eta 677061025.



osasun gida

Medikuntza Estetikoa

ANE YESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoa


Arragueta 2bis B, Entrepantia A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**

838200124
kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOZEEZ ETA ARRESALDEZ
UrkizU. 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023

Okulistak

Recalde
Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13




Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zenb.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zenb.)
Amagola Zubizarreta (122 Kolegiatu zenb.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com




PODOLOGOA

Maidier
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tñoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zenb.




943-206776



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian.
Periodontozian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estesikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutensea.
Hortz-Estesikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com